

## IKKI

### IKASTEKO KOOPERATU/KOOPERATZEN IKASI



Jardueraren egitura kooperatiboak berekin dakar jarduera edo zeregin bat gauzatzeko, ikasleek bete beharreko urratsak modu jakin batean antolatzea eta horrekin parte-hartze ekitatiboa eta aldibereko elkarrekintza ahalik eta gehien ziurtatzea.

**Parte-hartze ekitatiboa:** Ikasle guztiek izan behar dute jardueran parte hartzeko aukera eta «betebehar» bera.

**Aldibereko elkarrekintza:** Talde bateko ikasle guztiek izan behar dute beren ikuspuntua adierazteko aukera eta «betebeharra» eta besteekin eztabaidatzekoa eta hitz egitekoa akordio batera iritsi arte.

### IK/KI programaren edukiak

**1. Taldearen kohesioa A) esku-hartze eremua. Taldeko dinamikak, estrategiak eta jarduerak:**




- Erabakiak hartzeko unean adostasuna bultzatzeko.
- Ikasleen arteko harremana eta haien elkar ezagutzea bultzatzeko.
- Ikasleek urritasuna duen kideren baten inklusioan parte har dezaten errazteko eta elkar ezagutzea bultzatzeko.
- Taldeko lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko.
- Ikasleak modu kooperatiboan lan egiteko prestatzeko eta sensibilizatzeko.

## **2. Taldeko lana irakasteko baliabide gisa: taldeko lana txertatzea eta bultzatzea (B esku-hartze eremua)**

Lankidetzaz (jardueraren) egitura sinpleak.

## **3. Taldeko lana irakatsi beharreko eduki gisa: taldean lan egiten ikastea (C esku-hartze eremua)**

Taldearen barneko antolaketa bultzatzeko baliabide didaktikoak (taldearen koadernoak eta taldearen planak) eta taldean lan egiten irakasteko.



10. irudia